

GEPko ikaslea Hawaiiko Ironmanean

2010/11/04

Pasadan hilabeteen, urriak 8an, Aritz Egeak, GEPko ikaslea, munduko triatloi famatuenean parte hartu zuen, hain zuzen ere 3.8km igerin, 180km bizikletan eta 42km korrikan betetzen duen Hawaiiko Ironmanean.

Honaino heltzeko ibilbidea luzea izan da, orain dela 5 bat urte, Kirol Zerbitzura hurbildu zen bere entrenamenduak hobetzeko asmoz. Guk planinga egin eta bere konstantziarekin, uda honetan, Ingalaterrako Ironmanean bere kategorian 4 postua lortuz, Hawaiiko Ironmanerako gonbidapena lortu zuen.

Egunero klasera joan eta ikasteaz gain, 3-5 ordu entrenatu behar zituen, argazkian ikusten denez, 9 ordu baino gehiago iraunzuen proba bukatzeko.

Eskerrik asko Aritz, nolabait denok egon bai gara Hawaii-en zurekin.

Besteontzat adibide ona iza daiteke, ikasketak, lana... eta beste jarduerak, jarduera fisikoa bezala, konpatibleak direla ikusteko.

Zure kirol ibilbidea ona izan dadila opa dizugu.

MU Kirol Zerbitzua.

